ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 11, asteazkena • 130 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalari

Udalbatzak, 2026ko urriaren 21ean balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga arautzen duen Donemiliagako Udalaren Ordenantza Fiskalari.

Horiek horrela, eta bat etorriz Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19.1 eta 19.2 artikuluetan ezarritakoarekin, aipatutako ordenantza jendaurrean egongo da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Ohartarazten da erabakia behin betiko onetsitzat emango dela, baldin eta epea igaro eta erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez bada.

Erdoñana, 2026ko azaroaren 10a

Alkatea
ERIKA LETAMENDI HURTADO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.11 06:53:43 Z